

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1409

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 25ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bat. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak finantzatzeko 2015ean, betiere laguntza horiek emateko prozedura arautzen duen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduekin bat etorritz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2015eko martxoaren 18ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko 2015ean, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege dekretu horren bitartez, neurriak ezartzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko. Hala, Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikulua (p) idatzi-zatian xedatutakoarekin bat etorritz (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2015eko martxoaren 18ko bilkuran hartutako erabakia, zeinen bitartez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko 2015ean, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege dekretu horren bitartez, neurriak ezartzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko (erabakia ebazpen honi atxikitako eranskinean dago jasota).

Bigarrena.– Ebazpen honen bidez jakinarazten den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia aldatzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 25a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

ERABAKIA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO
ADMINISTRAZIO-KONTSEILUARENA, ZEINEN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE
ESLEITZEN BAITIRA 2001EKO MARTXOAREN 8KO 76/2000 ETA 2001EKO UZTAILAREN
31KO 25/2001 ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEAN DAUDEN
LANGILEENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK FINANTZATZEKO 2015EAN, BETIERE
LAGUNTZA HORIEK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILBURUAREN 2012KO APIRILAREN 18KO AGINDUAREKIN BAT ETORRIZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduaren helburua da arautzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura. Errege dekretu horren bitartez, neurriak ezartzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langile langabeentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko (196/2010 Errege Dekretua abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen). Sistemas de Instalaciones de Telecomunicaciones, S.A. (Sintel) enpresari eman zitzaion enplegu-erregulazioko espediente horiek ezartzeko baimena.

Diru-laguntzak emateko arau horren indarraldia mugagabea da. Hala ere, arauaren 6.1 artikuluan honako hau ezartzen da: aginduan aipatzen diren laguntzak emateko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira; kreditu horiek aldatu ahal izango dira indarrean dagoen aurrekontu-legeriarekin bat etorritz; hasierako kreditua eta izan litezkeen aldaketak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez iragarriko dira.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2015eko martxoaren 18ko bilkuran proposamena aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– 272.865 euro esleitzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege dekretu horren bitartez, neurriak ezartzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko. Zerbateko horretatik, 28.000 euro 2015eko ordainketa-kredituari dagozkio; gainerako guztia, berriz, hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari: 2016tik 2023ra. Diru-esleipen hori 3211 programaren kargura egingo da (Enplegua, 41. sekzioa – Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua).

Kopuru hori handitu daiteke, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari agintzea erabaki hau argitaratu emateko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2015eko martxoaren 26a, osteguna

DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

DIRU-LAGUNTZA BEREZIAK, ENPLEGU-ERREGULAZIO ESPEDIENTE HAUEK ERAGINDAKO
LANGABETUENTZAT: 2001EKO MARTXOAREN 8KO 76/2000 ETA
2001EKO UZTAILAREN 31KO 25/2001)

(Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretua, abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuak aldatua)
(Agindua, 2012ko apirilaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena)

- DIRU-LAGUNTZA BEREZIA KOPURU OSAGARRIA, HITZARMEN BEREZIA
GIZARTE SEGURANTZAREKIN
- BERREKITEA ALTA
 BERREKITEA

ESKATZAILEAREN DATUAK	
Abizenak:	Jaioteguna:
Izena:	NAN/AIZ:

ORDEZKARIAREN DATUAK	
Abizenak:	
Izena:	NAN/AIZ:

JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO HELBIDEA	Helbidea:		Probintzia:
	Udalerria:		Posta K.:
	Tel. mug.:		Tel. finkoa:
		Helbide elek.:	

ESKAERARI GEHITU BEHARREKO DOKUMENTUEN ZERRENDA

• Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, aitortzeari eta iraungitzeari buruz ordaindutakoaren arabera langabezia-saria amaitzeagatik. Sari hori jasotzeko eskubiderik izan ezean, Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak emandako ziurtagiria.

• Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorrarekin sinatutako hitzarmen bereziaren kopia, hala badagokio.

Soilik kasu hauetan: berriro jasotzen hastea eskatu duten pertsonak, lanean hasteagatik diru-laguntza eten eta gero:

• Kaleratze-gutuna edo kargua uztea egiaztatzea, langileari egotzi ezin zaion kausagatik.

Norberaren konturako lanpostua utzi badu:

• Gizarte Segurantzaren norberaren konturako erregimenean hartutako baja.

• Jarduera Ekonomikoen Zergan hartutako baja, lanpostua uztea eskatzaileari egozteko modukoa ez dela argi utzita.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (markatu X batez)

Ez du laguntzarik jasotzen xede eta helburu berarekin administrazio publikoen eskutik.

Ez dago itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren eraginpean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzek eraginda.

Ez zaio ezarri diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor-arloko edo administrazio-arloko zigorrak, eta ez dago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean.

Ez dago administrazio-edo zigor-arloan zehatuta sexua dela-eta diskriminatzeagatik, eta ez dago zehatuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki euskal administrazio publikoen laguntza eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin.

Eskabidean sartutako datu guztiak egiazkoak dira.

2015eko martxoaren 26a, osteguna

Nire lan-gaitasunerako, eta gizarte eta lanbide arloko baldintzetarako egokia den lan-eskaintza aproposak onartzeko prest nago, baita laneratzea ahalbidetzeko zuzendutako jardueretan parte hartzeko ere.

Bai Ez

Baimena ematen diot Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari elektronikoki egiazta dezan nire identitate-datuak baita zerga-betebeharren betekizuna ere (Oharra: horretarako baimenik ematen ez bada, hauxe aurkeztu beharko da: NAN/IFZ dokumentua eta Foru Ogasunarekin dituen betebeharrak bete izana frogatzen dituzten ziurtagiriak).

Bai Ez

Baimena ematen diot Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntza bereziak jasotzeko aitortpena, jarraipena eta kontrola kontsultatzeko edo eskatzeko Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorrari (diru-laguntzak aurreikusita daude abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan). Oharra: horretarako baimenik ematen ez bada, lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko du.

Era berean, eskatzaileak konpromisoa hartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazteko edozein eskaera, emakida edo bateragarriak ez diren diru-laguntzen, sarien edo pentsioen ordainketa, baita norberaren zein besteren kontura hasitako edozein lan, baldin eta aitorten honen ondoren gertatzen bada eta diru-laguntza hau jaso bitartean.

Aurretik esandako guztiagatik, diru-laguntza ematea ESKATZEN DUT dagokidan gehienezko zenbatekoan.

Vitoria- Gasteiz, ____ko _____ren __ (a)

Eskatzailearen/Ordezkariaren sinadura,

Izpta: _____

DATUEN BABESA

Eskabide honetan aurkeztutako datuak sartuko dira fitxategi automatizatu batean, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideak erabili ahal izango dira aipatu legean ezarritako terminoetan. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura jo beharko da: Jose Atxotegi, 1, 01009, Vitoria-Gasteiz.